# Barakaldoko Memoriaren Ibilbidea
## Itinerario de la Memoria de Barakaldo

# 10 Panela. Munoa Jauregia
## Panel 10. Palacio Munoa



**AURKEZPENA**

**Barakaldoko Memoria Historikoaren Ibilbideak 10 panel ditu, gure udalerrian Gerra Zibilarekin eta diktadura frankistarekin lotutako gertaera esanguratsuak gertatu ziren leku adierazgarrietan sakabanatuta. Ibilbidea egitera gonbidatzen zaituztegu, memoria historikoa berreskuratzeko pizgarri izan daitekeelakoan. Horren bidez, egia, justizia eta erreparazioa lortzeko eskubideak bermatzea bilatzen da.**

PRESENTACIÓN

El Itinerario de la Memoria Histórica de Barakaldo incluye 10 paneles repartidos por los lugares emblemáticos identificados de nuestro municipio en los que acontecieron hechos significativos en relación con la Guerra Civil y la dictadura franquista. Invitamos a realizar el recorrido como incentivador de la recuperación de la memoria histórica. Se pretende contribuir a garantizar los derechos a la verdad, la justicia y la reparación.



Munoa Jauregiaren birsorkuntza, Gerra Zibilean, matxinatutako armadak Barakaldo hartu aurretik, 1937ko ekainaren 22an.
*Recreación del Palacio Munoa durante la Guerra Civil antes de la toma de Barakaldo por el ejército sublevado, el 22 de junio de 1937.*

Horacio Echevarrieta Maruri (1870-1963) enpresagizon emankorra izan zen, ekintzailetza-gaitasun handikoa. Gainera, politikan jardun zuen, 1903 eta 1917 bitartean Gorteetako diputatu izan zelarik Conjunción Republicano-Socialista (CRS) alderdian. Munoa Jauregia izan zuen azken etxea.

Gerra Zibilean, eraikin horretan Osasun Kuartel Orokorra ezarri zen. Funtzio horretaz gain, beste erabilera batzuk ere izan zituen, eta puntualki Gerrako Ospitale gisa eta errefuxiatuak hartzeko gune gisa ere balio izan zuen. Ibilgailuen Parkea, Garraioen Intendentzia eta Anbulantzia Zerbitzua ezarri ziren 6,5 hektareako finkan.

Jauregia eta finka 2014an erosi zituen Barakaldoko Udalak.

*Horacio Echevarrieta Maruri (1870-1963) fue un prolífico empresario con una intensa capacidad emprendedora. Además, ejerció la política, siendo diputado a Cortes entre 1903 y 1917 por Conjunción Republicano-Socialista (CRS). El Palacio Munoa fue su último hogar.*

*Durante la Guerra Civil en este edificio se estableció el Cuartel General Sanitario. Además de esta función, tuvo otros usos, sirviendo puntualmente como Hospital de Guerra y también como espacio de acogida de refugiados. En la finca de 65 hectáreas que lo rodea se establecieron el Parque Móvil, la Intendencia de Transportes y el Servicio de Ambulancias.*

*Palacio y finca fueron adquiridos en 2014 por el Ayuntamiento de Barakaldo.*



Errefuxiatuen aurpegiak. Emakumeak eta haurrak Habana ontzian.
*El rostro de los refugiados. Mujeres y niños a bordo del Habana.*



Orthez, Frantzia. Euzkadiko haur-koloniaren ikasgela.
*Orthez, Francia. Aula de estudio de la colonia infantil de Euzkadi.*



Hendaia, 1936ko iraila. Irun erori ondoren ihes egin zuten zibilak.
*Hendaya, setiembre de 1936. Civiles huidos tras la caída de Irún.*



Hendaian erbesteratuak, Irun erori ondoren.
*Exiliados en Hendaya tras la caída de Irún.*



Santurtzi. Ertzainak haurrei laguntzen ari dira ebakuazio-ontziratzean.
*Santurtzi. Ertzainas acompañan a los niños/as en el embarque de evacuación.*

Armada kolpistaren aurrerapenarekin eta 1936ko urriaren 12an Gipuzkoa erori ondoren, errefuxiatuen harrera zentro ere bihurtu zen Munoa Jauregia. Errefuxiatu kopurua handituz joan zen, 4.000 baino gehiago izateraino. Ondoren, ordura arte erabili gabe zegoen Arrontegiko Ospitalean eman zitzaien ostatu gehienei.

Biztanleria zibilaren aurkako bonbardaketak hastearekin batera, haurrak - 2.724 guztira- atzerrira ebakuatzeko agindua eman zuen Euskadiko Gobernuak , Koldobika López historialariaren arabera. Frantzia, Britainia Handia, Belgika eta Sobietar Batasuna izan ziren harrerako herrialde nagusiak.

Uste denez, Gerra Zibilean 226.000 pertsonek ihes egin zuten Frantziara, eta errefuxiatuentzako esparruetan sartu zituzten, egoera penagarrian. Hilabete batzuk geroago, Alemaniako armadak aldameneko herrialdea okupatu zuenean, asko harrapatu, eta nazien kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten.

*Con el avance del Ejercito golpista y tras la caída de Gipuzkoa el 12 de octubre de 1936, el Palacio Munoa se convirtió también en centro de acogida de refugiados. Su número fue en aumento hasta superar los 4.000. A la mayoría se les alojó después en el Hospital de Rontegi, hasta entonces en desuso.*

*Con el inicio de los bombardeos sobre la población civil, el Gobierno de Euskadi decretó la evacuación al extranjero de niñas y niños, hasta un total de 2.724 según el historiador Koldobika López. Francia, Gran Bretaña, Bélgica y la Unión Soviética fueron los principales países de acogida.*

*Se estima que durante la Guerra Civil huyeron a Francia 226.000 personas, que fueron acogidas en campos de refugiados en unas condiciones infrahumanas. Meses má tarde, con la ocupación del país vecino por el ejército alemán, muchos fueron capturados y confinados en los campos de concentración nazis.*



Munoa Jauregiari erantsitako gelak, Odol Ospitale gisa erabiliak.

*Dependencias anexas al Palacio Munoa utilizadas como Hospital de Sangre.*



María Gago Carro (1912-2012) Barakaldoko Ospitaleetako erizainburu izan zen soilik 23 urte zituela.

*María Gago Carro (1912-2012) fue enfermera Jefe de los Hospitales de Barakaldo con tan solo 23 años.*

Munoa jauregiaz gain, bost Odol Ospitale izan zituen Barakaldok, honako leku hauetan kokatuak: La Salleko Anaien Ikastetxean, Bizkaiko Labe Garaien Ospitalean (egungo San Eloy Ospitalea), Miranda Fundazioan, Juan Ignacio Gorostiza Ikastetxean eta Arteagabeitia Ikastetxean.

*Además del Palacio Munoa, Barakaldo contó, con cinco Hospitales de Sangre, ubicados en el Colegio los Hermanos de La Salle, el Hospital de Altos Hornos de Vizcaya (actual Hospital San Eloy), la Fundación Miranda, el Colegio Juan Ignacio Gorostiza y el Colegio Arteagabeitia.*



Juan Ignacio Gorostiza Ikastetxearen birsorkuntza. Gerra Zibilean Ospitale bihurtu zuten, frontean zauritutako soldaduak artatzeko. Gaur egun, Alkartu Ikastola.

*Recreación del Colegio Juan Ignacio Gorostiza, -actual Ikastola Alkartu- reconvertido en Hospital durante la Guerra Civil para atender a los soldados heridos en el frente.*

visitbarakaldo / memoria histórica

visitbarakaldo / memoria-historikoa

Jarraitu ibilbideari
*Sigue el itinerario*

Barakaldo CIUDAD·HIRIA

Memoria ibilbideak Itinerarios de la Memoria

talaia.com